

DURANGOKO HEZKUNTZA-ERRONKAK ELKARLANEAN GARATZEKO prozesua

UEK EKAINEKO BATZARRA: akta

Eguna: 2025eko ekainak 11
Ordua: 18:00-20:00
Lekua: Elkartegia
Bilera-modua: aurrez aurrekoa

DEITUTAKOAK	Etorritakoak	Etorri ez direnak
1. Asier Perugorria EAJ-PNV -hezkuntza zinegotzia	☒	☐
2. Nagore Lozano Zarandona (EH Bilduko zinegotzia)	☒	☐
3. Iker Txertudi (EAJ-PNVko zinegotzia)	☒	☐
4. Sheila Gonzalez (PSE-EEko zinegotzia)	☐	☒
5. Daniel Irazola Atxa- Maristak-Zuzendaria	☒	☐
6. Egoitz Mezo (Maristak-zuzendaritzako kidea)	☐	☒
7. Moises Urien Arrizabalaga- Ikasketa Burua-Jesuitak	☐	☒
8. Arantza Arrizabalaga-Landako Eskola zuzendaria	☒	☐
9. Jon Gorriño Vicandi- Durango BHI zuzendaria	☒	☐
10. Iasmina Gorroño-Durango BHI zuzendari berria	☒	☐
11. Oihane Garcia- Nevers ikastetxea	☐	☒
12. Iker Gomez de Segura Solis- Ibaizabal ikastola-zuzendaria	☐	☒
13. Urko Rodriguez-Kurutziaga-zuzendaria	☐	☒
14. Izaskun Duñabeitia Kintana- Zabalarra HLHI zuzendaria	☒	☐
15. Oier Urigoitia-San Antonio ikastetxea zuzendaria	☒	☐
16. Mertxe Sagastizabal-San Antonio ikastetxea zuzendari berria	☒	☐
17. Maider Olabarria- IGE Zabalarra	☐	☒
18. Jonatan Azcondo Padin-IGE Jesuitak	☐	☒
19. Jorge Varela Dorrio – Herriaren eskubidea zinegotzia	☐	☒
20. Idoia Aldekoa (Elhuyar)	☒	☐
21. Olaia Jimenez (HUHEZI-MU)	☒	☐
	10	11

1. Sarrera eta kokapena

Hezkuntza-zinegotziak bertaratuei harrera egin die ongi-etorria emanez. Partaide oso gutxi agertu dira 18:00etarako. Itxarotea erabaki dugu beste batzar batzuetan zeudela jakinda.

Tarte horretan, Durango BHIko eta San Antonioko zuzendari berriak etorri dira eta erregistro-orriak banatu dizkiegu betetzeko.

18:20 zirenean, bertaratutakoei azaldu zaie gaurko saiorako puntu garrantzitsuena larrialdi-egoerei lotutako gaiaren lanketa dela, baina *quoruma* ikusita saioa bertan behera lagako dugula kide gehiago etorri ezean. Partaideek esan dute hasi gaitezkeela azalpenak entzuten beste kideak etorri bitartean.

Gauzak horrela, hezkuntza-zinegotziak azaldu du zein izan diren azken asteetan gizarte zerbitzuekin gin diren hartu-emanak. Aipatu da mezuz aritu dela zinegotzia GGZZetako koordinatzailearekin. UEKan zer lanketa egiten ari garen eta beraiekin bilera bat lotzea izan da asmo nagusia.

Mezuetan larrialdi-egoerei lotuta beraiekin gaia tratatzeko hiru aukera eskaini zaizkie:

- **1 aukera:** UEK eta GGZZen artean larrialdi-egoeren aurrean dauden kezka eta beharrei erantzun aukerak irudikatzea eta erreferentziak jartzea ekainak 11ko saioan
- **2 aukera:** UEKko saioan ateratzen diren kezka eta beharren zerrenda GGZZei bidali eta erantzunak jasotzea.
- **3 aukera:** Udala, ikastetxeak eta GGZZen artean formazioa antolatzea.

GGZZek jakinarazi digute 2. aukera dela egingarria beraien agenda eta lan-karga ikusita. Ekainaren 17an bilera bat egingo da UEKean atzematen ditugun ezinegon eta beharrak hobeto azaltzeko.

Talde teknikoak, UEKko azken saioetan ateratako ideiak ere partekatu ditu GGZZekin. Besteak beste, ondorengo hauek izan dira:

Kezkak:

- Gizarte Zerbitzuek interbentziorako jarraibideak edo prozedura ezagutzen dute, baina zalantza bat da ea larrialdi-egoerei erantzuten dien.
- Azpimarra jarri da, larrialdiko egoera bada, berehalako erantzuna behar duela eta hori ez dela gertatzen.
- Aipatu da ikastetxeek geroz eta arazo gehiago detektatzen dituztela eta adin txikikoak direla biktimak: batetik, testuinguru biolentoak bizi dituzten haurren mina goxatzeko baliabiderik ez dutela ikastetxeek azpimarratu da, ez dagoela psikologo figurarik ikastetxeetan; bestetik, gero eta suizidio protokolo gehiago zabaldu direla, gero eta adinez txikiagoak direnetan, baina ez dela kasuen jarraipenik egiten.
- Komunikazioak arinagoa izan behar du.

- Ikastetxeen sentipena da bakarrik daudela honetan eta kasu batzuetan beldurra ere sentitu dute.
- Detekzioa egin eta gero, ez dute feedbackik jasotzen eta kasuen jarraipena egiteko zailtasuna dute.

Bestelako behar batzuk ere bai:

- Oro har, GGZZek ezagutzen dituzuela ikastetxeek aipatutako ezintasunak.
- Antolamendua/koordinazioa hobetzeko beharra ikusten da: mahai bat sortzeak izan dezakeen garrantzia aipatu da, eta nahiz eta beste egitura bat gehiago izan, gaiari espezifikotasunez eta integritasunez erantzuteko balioko lukeela uste da.
- Formakuntza: Kasuen detekziorako gaitasun eta tresnak jasotzeko formakuntza egokia jasotzea gakoa izan daitekeela aipatu da. Irakasleak detekzio horretan klabeak izan daitezkeela ikusita, hor arreta jarri beharra azpimarratu da. Proposamena luzatu da irakasle guztiei formakuntza eskaintzea Mankomunitatetik, adibidez.
- Koordinazio-egitura: larrialdi-egoerei erantzun zuzena emateko plana landu daitekeela eta ikastetxeen artean edo herri-mailan (osasun zerbitzuekin eta GGZZekin batera) egitura bat osatu.

Adiera da, hiru aukeren sakoneko asmoa dela elkarlan aukera irekitzea eta hori bideragarri egiteko aukerak direla.

Landako eskolako zuzendariak aipatu du aurreko saioan ezin izan zela egon, baina akta irakurrita ez duela argi ulertzen zer den egin nahi dena. Bere esperientzian, Mahai Orokorrak bat existitzen da eta hori zuzendariak aktibatu dezake beharra ikusiz gero. Bere eskolan egon direla kasuak eta beharra ikusi duenen Mahai Orokorra aktibatu du.

Mahai orokorraren eskaera dagokion pediarrari egiten zaio. Pediatrari deitzen zaio, koordinatzailearekin harremanetan jartzen da eta mahaia aktibatzen da.

Mahai Orokorra aktibatzen da:

- Deribazio fitxa gabe.
- Esku hartzea bakoitzak berea egiten du.
- Gizarte Zerbitzuak

Jarraian, gai-zerrendan dagoena ikusita, lehentasuna larrialdi-egoeraren gaiari eman zaionez, saioarekin aurrera egitea erabaki da larrialdi-egoeren talde-dinamikari helduz:

1. Sarrera eta kokapena.
2. Girotze dinamika
3. Mugikorren erabilera arduratsu eta jardunbide egokirako gutxienekoak:

- 3.1. Altxa Buruaren ekarpenak integratuta.
- 3.2. Jarraipenerako tresna.
4. Ekintza-planaren garapena:
 - 4.1. Larrialdi-egoerak: beharrak jaso.
 - 4.2. Harrera-planaren jarraipenerako tresna.
5. Komunikazio-plana: bideoaren erakustaldia eta zabalkundea
6. Balorazioa eta itxiera (mokadutxo bat).

2. Ekintza-planaren garapena:

2.1. Larrialdi-egoerak: beharrak jaso.

Gaur lanketa gehiago sakontzea eta zehaztea da asmoa, beharra, ahalik eta argien azaltzeko. Testuingurua badakigu zein den (aurretik azaldutakoa). Zuzenean talde-dinamikara pasatu gara. Taldeari adierazi zaio lanerako dinamika PRAKTIKAK, BEHARRAK ETA INTERESAK zehaztea dela. Talde bakarra osatuko dugula eta papelografoan ageri diren hiru alderdiak osatuko ditugula. Hauexek osatzeko alderdiak:

PRAKTIKAK	BEHARRAK	INTERESAK
Egungo praktikatik, egoera bat noiz bihurtzen da larrialdi? Zein dira egoera horiek?	Egoera horietan sortzen diren beharrak zein dira? Zein dira sortzen diren galderak eta erantzunik ez dugunak?	Beharra gainditzeko zein dira proposatzen diren urratsak?

Taldean egindako ekarpenak honakoak izan dira:

PRAKTIKAK	BEHARRA	INTERESA
Arrisku fisikoak, lesioak edo etxeko biolentzia antzematen direnean...: a) Etixerik gabe geratzen direnean, non lo egiten dute edo egin dezakete? b) 18 urtetik gorakoak eta beherakoak, nola c) Nire buruari min: autolesio eta suizidio	a) Zer egin etxerik gabe dauden kasuan? b) Nora bideratu 18tik beherako ikasleak? eta 18 urtetik gorakoak? c) Etxeko biolentziaren kasuan, nora jo? Nora	Protokoloa hobeto ezagutu, bide asko daudelako. Ikasturte hasieran batzartzea GGZZ eta ikastetxeak, eta

kasuetan. d) Etxeko biolentzia dagoenean, nora doaz? Praktika oso desagradablea da. Egoera hauetan berehalako erantzuna behar dela ikusten da ez delako hala izaten. Praktika oso desagradablea da.	doaz haur edo gazteak? Berehalako erantzunaren lehen momentuan, nora jo? Ertzaintza, Aldundia, GGZZ... hasieran nora jo behar da? Larritasun altuko egoeran, etxetik atera behar denean, norengana jo Ertzaintza edo Aldundira?	erreferentziak ezartzea.
GGZZetara deitzen denean, ez dakite ikastetxeek norekin hitz egiten duten. Aldundiko teknikariak 24 orduan daude eta Ertzaintzara bidaltzen da txostena. Hurrengo egunean aldundiko teknikariak eskolan daude.	- GGZZetako erreferente bat eskolarako. - GL batek eraman ditzake eskola bateko kasuak? Protokolo berria: ibilbideak daude. Prozedura aldetik, oso larriak direnetan Aldundiak hartzetan du parte, baina beste egoeretan ez, GGZZek. Gaitasunak/trebetasunak: detekziorako prestakuntza.	Ikastetxe bakoitzak bere erreferenteekin bilera egitea eta kasuen jarraipen eta erreferentziak jartzea. Protokoloa hobeto ezagutu, bide asko daudelako.
Jarraipena, orientabideak eta protokoloa	Jarraipen minimo bat behar da: esku hartze prozesuaren berri izatea behar da. Adibidez, jaso dugu eskaera, familiarekin egongo gara edo zuzendari bezala mezu bat jasoko duzu esaten duen ohar bat, prestatuta egoteko mezuari edo telefono deiarri	Muga: batzuetan detektatzen duzun kasu batean eta gurasoek ez dutenean laguntzen, etxeko orientabideak kalte egiten dionean. Gaizki bideratuta daude. Eguneraketa: profesionalak, irakasleak, esku hartzeak eta

3. Mugikorren erabilera arduratsu eta jardunbide egokirako gutxienekoak:

3.1. Altxa Buruaren ekarpenak integratuta eta Jarraipenerako tresna

Jarraian, modu labur batean, aurreko saioan Altxa Buruko zenbait ekarpen jaso eta horiek mugikorren erabilerarako gutxienekoen dokumentuan jaso zirela azaldu da. Altxa Buruko zenbait ekarpen integratuta.

Dokumentuaren azken paragrafoan jasotzen dena irakurri dugu adieraziz “...*Udal Eskola Kontseiluan dokumentu honetan jasotzen diren gutxienekoen inpaktua zein den ebakuatuko du. Horretarako, 2024/2025 ikasturte bukaeran martxan jarritako jardunbideen jarraipena egingo du*”.

Horretarako prozedura bat prestatu dugu:

- Gutxienekoen betetze-maila neurtzeko/baloratzeko txantiloia Excelen.

MUGIKORREN ERABILERA ARDURATSUA ETA JARDUNBIDE EGOKIAREN JARRAIPENA		
IRASLEAK	BETETZE-MAILA	OHARRAK
Neurriak		
Lahen Hezikuntza (9-12 adin tartea) eta Derrigorretako Bigarren Hezikuntza (12-16 adin tartea), ikasketak mugikorrak gabeak izango dira. Eskola orbanegia, eta besterik ez, eskola esparruan, mugikorrak itzali eta gorde egingo dira.	Bete da	
Batzeldegia (16-18 adin tartea) eta Lahide Hezikuntza (18ko osorria), ikasketak mugikorrak itzali eta gorde egingo dira, atsederaaldian edo patioan, aldi, erabilera baimenduko da.	Bete da	
Mugikorra gordetzeko ardurak ikasleak izango dute edo ikasleak, kanpoan izan. Ikasle eta famillak jabetza izan, ez orokor arazo pertsonalak eragiten, eskolara dei dezaketen ikasleekin harremanetan jarraitu.	Bete da	
Lahen Hezikuntza eta Derrigorretako Bigarren Hezikuntza eskola jardura edo hezikuntza beharrezko gaitasunak erabiltzeko mugikorra ez da erabiltzeko jarraitu, kanpoan edo jantziak erabiltzeko da.	Bete da	
Batzeldegia eta Lahide Hezikuntza eskola jardura edo hezikuntza beharrezko gaitasunak beharrezko dela baloratzen direnean, mugikorra ikasleak edo ikas jardura erabiltzeko da.	Bete da	
Ez da bakoitzak erabiltzeko jarraitu behar ez direnean eta mugikorraren jardura denbora erabiltzeko gaitasunak, eguna erabiltzeko neurriak erabiltzeko da, etapa bakoitzaren diagnostikoa.	Bete da	
Ikasleak mugikorraren erabilera denbora erabiltzeko gaitasunak erabiltzeko da bakoitzak erabiltzeko gaitasunak erabiltzeko da, bakoitzak erabiltzeko gaitasunak erabiltzeko da, bakoitzak erabiltzeko gaitasunak erabiltzeko da.	Bete da	

Honako jarraibideak aurreikusi dira balorazioa egiteko:

1. Betetze-maila betetzeko orduan 3 kategoria izango ditugu:

Ez da bete	neurriak inpakturik ez duenean izan
Erdizka	neurriak maila batean garatu direnean eta aldaketa batzuk ematen hasi direnean
Bete da	neurriak guztiz garatu direnean eta aldaketa sakonak ematen ari direnean

2. Oharren zutabeen neurriaren garapenenari dagozkion azalpenak jasoko ditugu.
3. Ekainaren 27rako beteko dugu txantiloia eta iraileko Udal Eskolan erradiografia orokorra aztertuko dugu.

Azkenik, talde teknikoak erantzunak bildu eta bateratu egingo ditu eta iraileko UEKean argazki orokorra erakutsi eta neurrien egokitzearen behar den baloratuko da.

4. Komunikazioa

Komunikazio ekintzari lotuta, bideoa ikusi dugu.



<https://vimeo.com/1092472470/f73ba69e6d?ts=0&share=copy>

Hasierako inpresioen artean, hauek esan dira:

- Neure burua bideoan ikustea ez dut oso gogoko.
- Egin dugu bideoa, jasotzen du egin duguna.
- Ez naiz ondo geratu bideoarekin.

Bideoaren zabalkundeari hasiera Udalka emango dio. Zainduko dugu une hori udalak bideoa zabaldu arte eta, gero, ikastetxeon txanda izango da.

5. Balorazioa eta itxiera

Hurrengo saioa noiz izango den adierazi dugu: irailaren 17an, 18:00etan. Lekua aurrerago zehaztuko da.

Erronda egin dugu saioa baloratzeko:

- Denok ikusten dutela lanketa eta araoza.
- Nagore: bideoarekin ez dut ondo amaitu.

- Arantza: Ez genuen saioa egin behar eta aprobetxatuko dugu momentua.
- Dani: oso nekatuta etorri naiz, eta azkenean sartu naiz. Atsegina da giroa eta eruaten zaitu giroak.
- Mertxe: eskerrak eman, oso gustura sentitu naiz.
- Oier: bideaz gozatzen dot, bakarrik ez nagoela, gozatu dot eta bultzatu duzuenoi eskerrak. Batez ere bidetzaileei, eta denon jarrera, oso harro, penaz eta gustura banoalako eta amaitu dudalako.
- Iasmina: temazo, martziano bat bezala egon naiz.
- Jon: arratsaldeak eman du, gauza asko atera dira. Bideratzen badira, herrirako onuragarriak izan daitezke. Gustura egon naiz hemen, gero eta hobeto, harreman hobe, konfiantza maila bat lortu da eta talderako ona da, herrirako ere ona.
- Izaskun: urte batzuk egin ditugu hemen, hasierak izan ziren deskonfiantzatik, bakoitzak berak ordezkatzeko duena defendatzen zuen. Zerk lotzen nauen? hasiera gaitzak, magia egiten dugula hemen, espazio eroso da eta apur bat deskargarako lekua ere bada. Gero, gratifikantea da forma bat hartzen duenean. Natorren bakoitzean erresistentziekin nator, eta merezi du horrek. Denok jarraitzen dugu, argazkirako edo bideorako datorrena, berak galtzen du. Hemen gaudenok, lanean, ez dugu galtzen bidea galdu. Mariamek apur bat martxan jarri zuen, dinamizatzeko beharra zegoen eta orain horrela gaude horri esker.
- Asier: lau egon gara hasieran, lanean has eta gauzak atera dira. Bide zaila daukagu orain, baina amaiera bat eduki behar du. Zuei zuzendari berriei eskerri asko, denbora libre honi eskaintzearen.

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
•	